

GURE AMA EUSKERAREN ALDE LAU IRITZI

Don Carlos Santa Maria, jaun agurgarriak, Donosti'ko *Zeruko Argia*'n esan duanez ba'da jaun bat gure Ama Euskerari amabost urteko bizia bakarrik eman diona. Ariñ ibilli bearrean gera ba Ama au maite degun euskaldun guziok berari bizia luzatu nai ba'diogu.

Berrogei urte baño geyago dira Unamuno jaunak esan zigula eleizkizun eder batzuek antolatzeko («funerales de 1.^a clase» esan zuela uste det) illobi bikaiñ bat gertatzeko itzal aundiz eta irabazia zuan begiramentuz lurperatzeko, laister ill bear zuala euskerak eta.

Baña guk, Unamuno'ren esanari jaramonik egiñ gabe, gauzak batekoz-bestera egiten asi gera: Illobia gertatzeari utzi alde batera, eta Ama Euskeraren berjaiotzea antolatzen ari gera, alegiñean. Eta begira, ez dala Euskeraren berbizkundera esaten berjayotzea baizik.

Ez dago munduan ondo jayotako pèrtsonik, norbere Amaren alzoan ikasitako mintzoa maite ez duanik. Itz bakoitzak oroitzen baitio beragaitik bizia pozik emango zuan andre ura!!

Don Carlos Santa Maria'ren lan au irakurri nuanean, bereala egiñ nuana izan zan Arrate'ko Amaren Irratian, gauza bera irakurtzea, bear bada ni bezela beste batzuek ere mogituko ziralakoan, eta gero Euskeraren alde nere lau iritzi abek idaztia, emen irakurtzeko.

Lau iritzi dakarzkite, euskerari ene ustez asko lagunduko diotenak.

Lenengoa: Bizkai eta Gipuzkoa guztiko errietan, urteoro, Euskeraz idazten eta irakurten dakiten umeen artean sariketa bat egitea. Ez det uste Euskal-Erriko Ayuntamentuak, orretarako bear diran iru edo lau milla peseta ukatuko lituzkienik. Gañera, errietako pestetan, sariketa ori, beste gauza bat geyago izango litzake. Eta geroago ta arreta aundia-goa jendeak artuko leukena, gaur bertsolariekiñ gertatzen dan bezela.

Ama Euskera ikastoletan sartu eziñ degun bitartean, umeak ikastoletatik at irakurten eta idazten ikasten ba'dute gure izkuntzak aurrera-kuntza aundia egiñgo du. Erriak, euskeraz itz egiten duan erri guztiak, Euskeraz irakurten eta idazten jakiñ bear du Euskera biziko ba'da.

Bigarrena: Bear-bearreko beste gauza bat degu, umeentzat Euskeraz ipui politt batzuek, irratietatik esateko gertatzea.

Euskaldun ume guziak, gaur *Caperucita Roja* ta *La Cebra y los siete cabritos* eta entzuten egoten diran ume guziak, lilluraturik gindukez Euskeraz esango ba'lizkioez. Ez det esan nai ipui abek berak euskeratuta, *Caperucita Roja* ta abek buruz dakizkite. Beste batzuek esan nai det euskaldun umeentzat egiñak *ad hoc*, eurentzat egiñak.

Irugarrena: Au ere umeentzat.

Beste leku batzuetan bezela gure Euskal-Errian ere, ba'degu oitura berri bat. Umeak lenengo Jaunartzea duten egunean Irratietatik, zorionak emateko abesti bat kantatzea. Mayatzaren lenengo egunetatik, garrillaren azkenengo egunak bitartean Bilbao, Donosti, Arrate ta Loyola'ko irratiak, milla bider abestu dute *La Primera Comunion por Paco Romero*.

Bergara'n, Amezketeta baserriko Juanatxo'ri, bere lenengo Jaunartzean.

Askisu'n Zabalaga baserriko Joxe Mari'ri bere lenengo Jaunartzean. Elgoibar'ko, Zumaya'ko, Ispaster'ko, Mungia'ko ta Euskal-Erri guztiko umeeri Paco Romero'n abesti ori eskeintzen diote.

Ni negarrari eutsi eziñik egoten naiz, gauza abek irratian entzuten ditudanean. Ba'dirudi euskaldunok ez degula ez erlijiorik ez eleiz abestirik ez umeen psikolojiaren berririk ez zentzunik...

Oar bat. Ez det abesti orren aurka ezer esan nai, ez eta ere emen gauden iñor minberatu nai. Abesti ori Andaluzia'ko umeentzat ondo biltatzen det. Baña... Larrabetzu, Oyartzun eta Ondarrukoentzat...

Bear-bearrekoa deritzat bada beste abesti batzuek, egun orretarako *ad hoc* egiñak. Ba'ditugu olerkariak, baita ere musikariak Jaunari eskerrak ugari Euskal-Errian. Ez al dezute iñoiz entzun zeuen eleiza nagusian Jaunartze aundiak diranean abesti ukigarri au?

«Ostian bizi zera

Gau ta egun nigaitik...?»

Edo beste au:

«Or zaude Jesus aldarean

Gorde nai zaitut biotzean?»

Edo ta:

«Intzik ez dutenean

Loretxoak

Laister gelditzen dira

Igartuak...»

Aiñ samurrak, aiñ geureak eta aiñ egokiak.

Berdiñ diot lenengo seme-alabatxoeren bateorako. Egun orretarako ere sartu zaigu bada Paco Romero gure irratietan.

Laugarrena: Beste oitura berri bat ere ba'degu irratietan. Ezkontza egunetan ezkongayari, disko baten bitartez zorionak opatzea. Askok euskerazko diskoak opatzen dizkiote, baña beste askok erderaz. Eta zelako abestiak!!! Arrateko Ama'ren irratian, lengo egun baten, euskeraz esan zuten nori eskeintzen zioten diskoa, nork eskeintzen zuan eta zergaitik. Biaramonean ezkontzen ziralako alegia. Aurretik euskera aiñ jatorki zetorren ezkerero, poztu nintzan, eta uste izan nuan euskerazko abesti eder bat entzungo nuala. Ainbeste ta ainbeste abesti eder, maitetasunari dagozkion abesti xamur egokiak ditugu bada euskeraz!!! Baña, bai zera!!

La Virgen no quiso que yo fuera mataó... eta ortik aurrera.

Euskal-Erriko ezkongayak, abesti abekaz euren ezkontzak jaitu nai dituztela ikusirik, esaten det nere baitan: Ez ote dauka arrazoia, Euskerari amabost urteko bizia eman dion jaun orrek?

Nai-ta-naiezkoa degu bada, euskaldun ezkonberrientzat, berarizko abesti eder bat disko batean egitea. Letra atera liteke Lizardi aundiaren olerkietatik edo Lauaxeta'renetatik, edo bizi diran ainbeste olerkari onetatik.

Zer ederra izango litzakean euskaldun bikote denari, euren ezkontza egunean onelako disko eder bat irratietan ipintzea!!! *Marcha nupcial de Mendelsson* beziñ ezaguna izatera eldu arteraño.

Nere lau iritzi abek Euskaltzaindiak ontzat artzen ba'ditu, Euskal-Erriko Udaletxe guztietara (Euskeraz itz egiten dan guztietara beintzat) zuzendu bear luke idatziz, erriko pestetan, lenengo iritzian esan detan bezela, ume euskaldunen artean sariketa oyek egiteko eskatuaz. Errietako Ayuntamentuak, begi onez artuko dute, ondo eta onez-onean egin dako eskabide au, eta gañera Euskaltzaindia eskertu egingo dute eurakiñ oroitu dalako eta aintzat artu ditualako.

Disko berri batzuek egiñ bear dira, gutxienez sei bat umeen ipuieneztat, bat umeen lenengo jaunartze egunerako, bat lenengo seme-alabatxoeren bateorako eta beste bat edo geyago ezkontza egunetarako. Disko oyetarako gayak erraz batu gentzakezala uste det. Ni neuk ipui batzuek egingo nituzke pozik, beste askok ere egin lezazke eta Euskaltzaindiak aukeratu ditzala onenak, ez mintzoari buruz bakarrik, baita musikari buruz ere eta Pedagogiari buruz batez ere.

Eta onela Dn. Carlos Santa Maria jaunak, asieran aipatu detan lan orretan dion bezela: egiñ eta egiñ; ekiñ eta jarrai egiten ba'degu euskera biziko da.

Eskauriatza'ren Azpeitia'tar Julene.